
Kongresua eta Mendeurrena

4



Mendeurrenaren ekitaldiko hitzaldiak

Intervenciones del acto del centenario

Interventions au cours de la cérémonie du Centenaire

Azaroaren 24an egindako ospakizun-ekitaldian hitz egin zuten Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak, Uxue Barkos Nafarroako Gobernuko lehendakariak, Jean-René Etchegaray Euskal Hirigune Elkargoko lehendakariak eta Mikel Biain Oñatiako alkateak. Hitzaldi hauek, eta Iñaki Dorronsoro, Eusko Ikaskuntzako lehendakaria, eta Xabier Alkorta, Mendeurreneneko lehendakariaren hitzak biltzen dira ondorengo orrialdeetan.

En la ceremonia del 24 de noviembre tomaron la palabra el Lehendakari del Gobierno Vasco Iñigo Urkullu, la Presidenta del Gobierno de Navarra Uxue Barkos y el Presidente de la Aglomeración del País Vasco, Jean-René Etchegaray, así como el alcalde de Oñati Mikel Biain. Sus palabras, junto a las del Presidente de Eusko Ikaskuntza, Iñaki Dorronsoro, y las del Presidente del Centenario, Xabier Alkorta, se recogen en las siguientes páginas.

Le Lehendakari du Gouvernement Basque, Iñigo Urkullu, la Présidente du Gouvernement de Navarre, Uxue Barkos, et le Président de la Communauté d'Agglomération du Pays Basque, Jean-René Etchegaray, ainsi que le maire d'Oñati, Mikel Biain, ont pris le parole lors de la cérémonie du 24 novembre. Leurs interventions, ainsi que celles du Président d'Eusko Ikaskuntza, Iñaki Dorronsoro, et du Président du Centenaire, Xabier Alkorta, sont reproduites dans les pages suivantes.

Mikel BIAIN jn.

Oñatiako Alkatea

Euskal Erkidego Autonomoko lehendakari jauna, Nafarroako lehendakari andrea, Iparraldeko Lurralde Elkargoko lehendakari jauna. Guretzako pozgarria da gaur zuek hemen elkarrekin ikustea. Euskal Herriko zein espanyiar nahiz frantziar estatuko txokoetatik gerturatu zareten guztioi, egun on eta ongi etorri Oñatiira. Atzoko irekiera ekitaldian esan genuen ohore bat izan zela duela ehun urte eta ohore bat da berriro ehun urte ondoren, gaur, Oñatin, Euskal Herriko txoko berezi honetan, Eusko Ikaskuntzak Euskal Hiriburueta Kongresuen ondorioetatik abiatuta, bere ikasketak bertan plazaratu izana.

Azpimarratu nahiko nuke Eusko Ikaskuntzak iragan hilabeteetan egin duen ahalegina. Herritarrekin elkar harturik, euskal gizartearen erronka nagusiei erantzun asmoz, hausmarketa saio kolektiboak emankorrak izan direlako euskal hiriburu hiriburu. Euskal Herrirako egitasmo handia izan zen 1918ko hora; jatorri nahiz sensibilitate ezberdinako jendea elkar harturik jardun zelarik. Eta ehun urte geroago ere, hala izan da. Pertsonak, herritarraizk izan dira hilabeteotan egindako



lanaren protagonista, baina badago elementu bat aipatu nahiko nukeena eta hori da: soka.

Euskal Gizartea aberatsa da, herri tradizio demokratiko sakonekoa. Legalitate espaniar zein frantziarra ezarri zitzaion herri zahar honi duela mende batzuk, baina bere sustrai zaharrak hor diraute: nafar-piriniar eskubide zaharretik edan duten sustraiak. Horri esker, herri honek badaki eta erakutsi du erronka anitzei modu komunitarioan, kolektiboan, elkar harturik erantzuten. Eta horixe da, hain zuzen, guztiun arteko indarra; eta esan dudan hau zerbaitek ondo irudikatzen badu, hori da soka, herritar eta orotariko herri ordezkariak soka bakarrean, maila berean, elkar harturik, Euskal Herria, euskararen herria amankomunean. Duela ehun urte horrela egin zuten gure aitonamonek eta horrela egin dugu edo saiatu gara gaurkoan ere. Oñatin sortu zen, eta Oñatin ematen diogu aro berrirako behar duen bultzada kolektiboa Eusko Ikaskuntzari. Zorionak, beraz, eta, sokari ondo helduta, bide on Eusko Ikaskuntzari.

Ez nuke amaitu nahi, edo bukatu aurretik behintzat, esker on berezi bat luzatu nahiko nieke kongresu honen antolakuntzan fin-fin aritu diren Eusko Ikaskuntzako kideei, udaletxeko langile-zinegotziei eta, beno, hor ibili diren guztiei, eta, bereziki, parrokiako parrokoari, eta parrokiako juntari ere bai, gaurko honetan ateak zabaltzeagatik, eta eskertza berezia ere, nola ez, Oinatz Dantza Taldeari, Irizar aita-alabari, Oier Araolazari... eta zerrenda oso luzea izan daiteke, baina, batez ere, mende hurren honetarako horren sinbolismo berezia daukan Aurreko hau landu izanagatik. Jaso ezazue gaur bero bat guztiok eta gozatu egon honetan gure herriaz, eskerrik asko.

Xabier ALKORTA jn.

**Eusko Ikaskuntzako
Mendeurrenenko lehendakaria**

Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, Nafarroako lehendakaria, Euskal Elkargoko lehendakaria, Madrileko Gobernuko delegatua, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako ahaldun nagusiak, lehendakari ohiak, Unibertsitateko errektoreak, Euskaltzaindiaren presidentea, Oñatiko eta Euskal Herri osotik etorri zareten alkateak, euskaltzale eta lagun guztioi, egun on eta ongi etorri.

Orain dela 100 urte hemen ordezkatuta zaudeten lau erakunde fundatzaileek, hots, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako orduko aldundiek sortu zenuten Eusko Ikaskuntza. Zertarako? Bada, kontestu nahasi hartan kinka larrian zegoen gure kulturari, euskara galtzeko zegoen arriskuari, Unibertsitate faltari eta Erakundearen ahultasunari erantzun bat emateko.

Testualki lehenengo Kongresuko idazkariak, itxierako saioan, hau esan zuen: “Es la hora del corazón, el alma vasca necesita más espacio, más amplitud, prevé que van a serle estrechos los viejos límites, es la hora solemne del País Vasco, necesitamos unión”. Eta baita ere: “Creamos Eusko Ikaskuntza, Sociedad de



Estudios Vascos como asilo sagrado de nuestras aspiraciones”. Eta hau ere: “No creamos una Academia, sino una organización en la que debe participar el pueblo”.

Ehun urte hauetan saiatu da Eusko Ikaskuntza bere sorrerako helburuari erantzuten. Atzo amaitu genuenarekin, 18 kongresu egin ditugu; denak mugariak izan dira gure ibilbidean, momentuko erronka eta gure herriarentzat lehentasuna zuten gaiei erantzun nahian. Azken ezohiko kongresu honek izan ditu bere ezaugarriak. Horien artean, hauek aipatu nahi ditut, labur:

- Mendeurrenaren gakoan txertatuta dagoela.
- Orain ere mundu mailako egoera nahasi eta eraldakor honetan, gure irakurketa, egokitzapena eta erantzuna behar dugu.
- Lau urte dela hasi genuen prozesu parte hartziale baten ondoren aukeratutako gaiari heldu diogu.
- Lurraldeari, Euskal Herri osoari begiratzen diogu; horregatik, Baionan hasi, eta Gasteiz, Iruñea, Bilbao, eta Donostiatik pasatu ondoren, berriro Oñatin biltzen gara.
- Prozesu parte hartziale batean milatik gora pertsona eta erakunde bidelagun izan ditugu: aditu, aritu, norbanako, erakunde eta instituzioen ahotsak eta ekarpenak jaso ditugu, atzo argitarra eman genuen oinarrizko Liburu Zuria da horren lekuko.
- Eta, azkenik, modu propositiboan, gure ahuleziak eta erronkak saihestu gabe, etorkizunari begira, kohesioa eta elkarkidetza bilatuz, herri egitasmo bat eta agenda bat eskaintzen ditugu.

Geroa Elkar-Ekin leloari erantzunez eta etorkizunari begira, orain dela 100 urte bezala, gaur, ariketa hau egin ondoren, denona den Eusko Ikaskuntza zabalago, indartsuago, aberatsago eta eguneratuago bat dauagu, eta horrela azaldu eta eskaini nahi dizuegu denoi.

Herri mailan, “narratiba” partekatu bat falta dugu; inteligentzia kolektiboa aktibatu beharra dauagu, ongizate orokorra bermatzeko eta nortasun politiko amankomun bat indartzeko, gobernantza demokratiko berriaren baitan.

Baditugu pertsonak, balio partekatuak eta kapital soziala etorkizuna eraikitzeo. Gai izan gara, herri bezala, besteak beste, euskara biziberritzeko, krisiei erantzuteko, etorkinak integratzeko, Ipar Euskal Herriaren agenda instituzionala garatzeko eta ezberdintasunak kudeatzeko.

Euskal Lurralde guztiak ditugu gaur erakundetuta. Alabaina, erakunde eta herritarron arteko kohesioan urratsak egin behar direla argi dago. Euskal lurraldleen arteko harremanak sendotze aldera, politika publiko partekatuak indartu behar ditugu.

Eta hori guztia denon artean egin behar badugu, ba al dauagu lan hori bideratzeko erakunde egokiagorik horretarako jaio zen eta indarberriturik dauagun Eusko Ikaskuntza baino?

Bukatzeko, 1918. Kongresuko Presidente izandako Julian Elorzar itxierako saioan esan zuena irakurriko dizuet:

“Doy las gracias a cuantos han contribuido a la celebración de este memorable Congreso. Permitidme –esan zuen– que como expresión de todos nuestros anhelos, como satisfacción a esta honda emoción que a todos nos embarga en estos momentos, pronuncie una frase que debéis grabar para siempre en vuestro corazón: ¡Viva el País Vasco!” Horrela bukatu zuen Julian Elortzak.

100 urte igaro ondoren eta haren hitzak errepikatuz, nik ere hori esan nahi dut:

Gora Euskal Herria! Eta bizitza luze eta oparoa Eusko Ikaskuntzari!!!

Mila esker



Iñaki DORRONSORO jn.

Eusko Ikaskuntzako lehendakaria

Agintari, Unibertsitate, Euskaltzaindia, Jakiunde, beste erakunde, herritar eta baziide lagunok!

Orain ehun urte hementxe, Oñatin, egin ziren ekitaldiak gogoratzeko bildu gara gaur hemen, eta gure aitzindari haiei omen egiteko, gure Herria zerbitzatzeko asmo haren berri emateko, Eusko Ikaskuntzak 1918an euskal erakunde publikoetatik jaso zuen mandatu argia berritzeko eta zuei guztioi bihotz-bihotzez eskerrak emateko, bide honetan adorez eta ahaleginez lagunzeagatik.

Gogoratu behar da lehen Kongresu hura mugarrria izan zela gure historia modernoan. Harez gero, ezagutza sustatu du Eusko Ikaskuntzak, eta Euskal Herriko lurraldleen asmoi forma eta zehaztapena eman die sasoi hartan lehenesten ziren alorretan. Gainera, askotariko ekimenak proposatu eta proiektu garrantzitsuak egin ditu Euskal Herriaren funtsezko gabezienguruan, bereziki unibertsitatea eta lau probintzietako erakundeak sendotzeko, eta egitura berriak sustatu ditu. Eusko Ikaskuntza bera izan da lehen egitura, bai eta nagusia ere, eta,

segidan, Euskaltzaindia. Eta, geroago, lorrazt horri jarraikiz, orain hamar urte sortu zen Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren Akademia.

1918an nagusiki elite intelektual bat zegoen ezagutzan jantzia, eta haiei eskertu behar zaie ezagutza hura herri egitasmoaren mesedera jarri izana. Aurrez lan mardula eginda, Oñatiko kongresuan biribildu zuten azken emaitza hura eta herritarren esku utzi, jendez betetako plazan soka-dantzan lotuta.

Iritsi da 100 urte gorabeheratsu hauetan egindako lana aitortzeko unea. Inguruabar, proiektu, burutzapen eta, batez ere, protagonista guztiak gogoratzea oso luze joango litzateke, nire esku-hartzearen mugetatik harago. Aurrendari haien utopia asko eta asko gauzatu egin dira.

Gaur, ehun urte eta gero, mende-aldekarekin batera, agertoki aldakor erabat ezberdina bizi dugu.

Hiru urtez aztertu eta eztabaидatu ostean, adostu dugu partekatutako etorkizuneko proiektu bat egituratu beharra dagoela, eta ezaugarri hauek izan behar dituela: sistema demokratiko eta kooperatibo berri batean funtsatuko da; herritarriek ahalmena emango dio (arlo komunen erantzunkide baita); aniztasuna errespetatuko du; berrikuntzaren alde egingo du; gauza izango da aberastasuna sortu eta metatzeko, eta egoki banatzeko, baita ekonomia garatu eta inguru naturala zaintzeko ere; eta bere ardurapean hartuko du gure kultura eta euskara garatzea eta bizitza osoan zeharko hezkuntza, funtsezko elementuak baitira barne-kohesio handiagoa lortzeko.

2018an ezagutza oso hedatuta dago euskal gizartean. Oñatin aldarrikatutako unibertsitatea eraikita dago eta aditu ugari sortu ditu diciplina ezberdinat; aldi berean, herrigintza indartsu bat garatu da eta aditu asko daude han eta hemen, eskarmentu handikoak, gizarte erakunde espezializatuetan; eta



erakunde publikoetan ere ezagutza handia metatu da, bai langile finkoengen eta baita aldiroko hautetsietan ere.

Ilusioz eta arduraz betetariko abagune honetatik abiatuta, XXI. mendean piztu zaizkigun kezka berriei, ikerketa, hausnarketa, azken finean “adimen kolektiboaren dinamikatik”, erantzun adostuak emateko nahi indarberriituak mugitzen gaitu gaurko Eusko Ikaskuntzakoak ere.

Behin XVIII. Kongresua amaituta, Eusko Ikaskuntzak bere egiten du haren eduki eta ondorioa, eta lanean jarraituko du erakunde publiko, zientifiko, eta sozialekin proposamen hauek gauzatzte bidean jartzeko.

Azken finean, Euskal Herriaren etorkizuneko ikuspegia eraberritu bat garatzeko eta gaur egungo erronkei aurre egiten laguntzeko irtenbide ausart eta kementsuak emateko, erakunde bat izaten jarraitzen du Eusko Ikaskuntzak.

Hori da gure Xeedea.

Zuen babes eta konpromiso aktiboarekin beste ehun urte emankor eta arra-kastatsu opa dizkiot Eusko Ikaskuntza eta Euskal Herriari.

Beti denok ELKAR-EKIN!

Lagundu diguten guztiei eskerrak emateko momentua ere iritsi da:

- Gure sortzaile Aldundie eta gaurko Nafarroako Gobernua dena “gogoratu joan zen martxoaren 14an Bilbaoen Eusko Ikaskuntzarekiko konpromisoa berretsi zutela”.
- Eusko Jaurlaritz, Ipar Euskal Herriko Elkargoa eta Kultura Ministerioari.
- Euskal Herriko hiriburueta Alkatee, baita gurekin lankidetzan ari diren Udalei ere.

• Euskal Herriko Unibertsitateari, Mondragon Unibertsitateari, Deustukoari, UNED, Paue, Nafarroako Unibertsitate Publikoari, Nafarroako Unibertsitateari. Azkenik eta bereziki UEUri.

- Eusko Ikaskuntzako Kontseilu Errektoreko, Batzorde Zientifikoko kide, Zuzendari Zientifiko eta egitasmoetan parte hartu duzuen guztioi.
- Eusko Ikaskuntzako Zuzendari, lantalde eta bazkideei.
- Gure diruzko eta azpiegiturazko laguntzaileei.
- EITB eta komunikabideei.
- Hainbat sari eman dizkiguzuen erakunde, komunikabide eta elkarteri.
- ONCE eta Musikasteri.
- Mendeurreneko liburuan parte hartu duzuen idazle eta editoreei.
- Hamaika amaren seme (alaba)-ren antzezlanan posible egin duzuen idazle, zuzendari eta antzezleei.
- Mendeurreneko ospakizun honetan parte hartu duten Donostiako Orfeoi, Oñati eta Arizkuneko dantzari, txistulari, Gontzal Mendibil eta Joxan Goikoetxeari.
- Eta, bereziki, Oñatiko Alkate, Parroko eta antolatze lanetan lagundu diguzuen guztioi, baita Oñatiko herriari ere.

Horien guztien laguntzarik gabe ezin izango genuelako gaur hemen bukatzen ditugun XVIII. Kongresu eta Mendeurrenaren ospatu.

Eta orain, mesedez Ana Urkiza andrea, Argitxu Etxandi andrea eta Sho Hagio jauna zuei dagokizue Eusko Ikaskuntzaren 2018ko Adierazpena irakurtzea.



Jean-René ETCHEGARAY jn.

Euskal Hirigune Elkargoko presidente
Président de la Communauté d'Agglomération
du Pays Basque

Eusko Ikaskuntzako lehendakari jauna,
Nafarroako gobernuko presidente anderea,
Eusko Jaurlaritzako Lehendakari jauna,
Jaun, andereak,
Plazer handiz etorri naiz egun zuen artera Eusko Ikaskuntzaren
mende urrenaren ospatzera.

Badu orain ehun urte Eusko Ikaskuntzak hainbat gogoeta eta
ikerketa bultzatzen duela arlo guzietako pentsalariak eta
zientzialarik bilduz. Eusko Ikaskuntzaren lanei esker,
etorkizuneko erronkak aurre ikusi dira, ikus pundiak partekatu
dira, eta ororen buru elkarlana ahalbidetu da. Elkarrekin
pentsatzuz, elkar ulertzea lortzen baitugu.

Iparraldean, Euskal Elkargo berria molde horretan sortu dugu.
Hogei urtez Garapen Kontseiluan eta Hautetsien Kontseiluan,
horizonte ezberdinetako eragileak elkarrekin lanean ari izan
gira, proiektu komun hori ontzen.

Eta orroitarazi nahi nuke lan horretan Jean-Michel Larrasquet,
Iparraldeko Eusko Ikaskuntzako lehendakariak izan zuen
eragina. Oraino gogoan ditut Hautetsien kontseiluko
lehendakari nintzen garaian, elkarrekin izan genituen solas
aberatsak.

Nous clôturons aujourd’hui le centenaire d’Eusko Ikaskuntza.

Je suis très heureux et très fier de représenter Iparralde pour
l’achèvement de ce XVIIIème Congrès d’Etudes Basques qui
avait débuté à Bayonne en octobre dernier.

« Geroa Elkar-Ekin/Notre futur ensemble », la thématique de
cette journée clôture de la plus belle manière qui soit le
centenaire d’Eusko Ikaskuntza.

Ce congrès a fait escale dans tout le Pays Basque, au Nord, au
Sud. Et tous les territoires sont représentés pour regarder
ensemble vers l’avenir. Nous avons tant de sujets qui nous
rassemblent : la culture, la langue bien sûr. Le Pays Basque est
un point de passage majeur dans l’Europe, l’actualité nous le
rappelle.

C'est autour d'acteurs tels qu'Eusko Ikaskuntza, des réflexions
partagées, que nous pourrons construire des solutions
communes.

Zorionak Eusko Ikaskuntza, iraun beza beste hainbeste
mendetan.



Uxue BARKOS and.

**Nafarroako Gobernuko Presidentea
Presidenta del Gobierno de Navarra**

Lehendakari Jauna,

Euskal Hirigune Elkargoaren Presidentea,

Oñatiko alkate Jauna,

Agintariak,

Eusko Ikaskuntzako Lehendakari eta ordezkariak,

Jaun-andreak,

Pozgarria da Eusko Ikaskuntzaren mendeurrenena ospatzeko
ekitaldi honetan parte hartzea.

Gaurkoan mende oso baten ibilbide oparoa aitortzeko eta
Eusko Ikaskuntzari horretan jarrai dezan bihotz emateko bildu
gara hemen, orain ehun urte gu ordezkari gaituzten
erakundeek egin zuten bezala.

Harrezkerotik Nafarroaren eta Eusko Ikaskuntzaren arteen
harreman luze eta ugaria eratu da. Nafarroako Foru Aldundia
Eusko Ikaskuntzaren sortzean izan zen, erakunde sortzailetako;

eta erakunde zientifikoak egin duen mende osoko jardueran
Nafarroa egon da aldi oro haren kezka, aztergai, asmo eta
hausnargaien artean.

Por ello es un honor, como Presidenta del Gobierno de
Navarra, tomar parte hoy aquí, en los actos de celebración de
este siglo de trayectoria.

Hace ahora cien años, en 1918, aquí, en Oñati, comenzó
Eusko Ikaskuntza una andadura cultural y científica que ha
desarrollado en todos los territorios. Siempre ha dejado
patente su total compromiso con nuestra sociedad, desde el
trabajo ligado a su realidad y sus necesidades en las distintas
áreas del conocimiento: historia, antropología, sociología,
economía, agricultura, educación...

Aipamen berezia merezi du euskal kulturarekin eta
euskararekin izan duen ardura: aldeko ekintza ugari antolatu
zituen halakoak hain beharrezkoak eta hain urri ziren garaietan
bereziki.

Aurten, mendeurrenaren jarduera nagusitzat, Eusko
Ikaskuntzak Hemezortzigarren Kongresua antolatu du “Geroa
elkar-ekin” lemapean. Kongresua hiriburu nagusietan eta plaza
honetan ere, Oñatin, gauzatu da. Parte hartze zabala, iritzi
truke trinkoa eta gogoeta sakonak egon dira biltzarren
antolaketaren prozesuan; eta zinez eskertzekoa da
Hemezortzigarren Kongresu hau antolatzeko bideratu duen
ariketa kolektiboa.

Kongresua hausnarbide mamitsua izan da nahi dugun gizartea
irudikatzeko, gure lehentasunez eztabaidatzeko, gure
aniztasunean gure indarra ikusteko... azken finean, gure
etorkizunaren erronkei “asmoz eta jakitez” –Eusko
Ikaskuntzaren izenari lotzen zaion esaldiak dioenez– nola
erantzun gogoeta egiteko.



Bizi garen momentu historikoan gogoeta parte-hartzalea eta askotarikoa ezinbestekoa dugu. Hogeita batgarren mendeko gizarteok bizikidetza eta gizarte-kohesioa dugu erronka eta premia horiek elkarrekin lan egitera behartzen gaituzte, eta gainera aniztasunaren eta elkarritzetaren balioetan erabat sinetsirik, bermatu nahi dugun gizarte askearen eta demokratikoaren harroinak aniztasunean eta elkarritzetan baitautza. Horretan egin du Eusko Ikaskuntzaren Hemezortzigarren Kongresuak ekarpen baliotsua. Eta ariketa horretan guztiz bat egiten du Nafarroako Gobernu honek legealdiaren hasieratik bere egin dituen balioekin.

Por todo ello, quiero felicitar a Eusko Ikaskuntza por esos cien años que ahora cumple. Pero también quiero, al margen de mi felicitación, darle las gracias por el camino recorrido a lo largo de este siglo, por la sensibilidad y el esmero que ha demostrado siempre con las necesidades y problemas de nuestra sociedad.

Nire hitzei amaiera emateko, Nafarroako Gobernuaren izenean, Eusko Ikaskuntzari bihotz eta adore eman nahi dizkiot haren bidean segitzeko orain arte bezain arduratsu aurrerantzean ere.

En este camino tendrá siempre el apoyo del Gobierno al que represento y, estoy segura de ello, también el reconocimiento y el agradecimiento de toda la sociedad navarra.

Beraz, esker mila, zorionak eta anitz urtez!!

Iñigo URKULLU jn.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
Lehendakari del Gobierno Vasco

Uxue Barkos andrea, Jean-René Etchegaray jauna eta zuekin batera zaudeten herri agintari eta herri ordezkari, Eusko Ikaskuntzaren presidente, arduradun eta kideok, herri gizataldeetako ordezkariak, jaun andrek, egun on.

Lehenik eta behin, Eusko Ikaskuntzari eskerrik asko zuen gonbidapenagatik eta zorionak ehun urte hauetan indar bizian ospatzeagatik.

“Lenengo arau” honekin jaio zen Eusko Ikaskuntza duela ehun urte:

“Euskalerria maite duten ta ikasbidez argitu nai luketen guziak biltzea da Baltzu onen tsedea”.

Ehun urte ondoren, Eusko Ikaskuntzak aurrera jarraitzen du bere eginkizunean, orduan bezala, etorkizunari begira.

Lorpen handia da, orduan eta gaur, elkartu garen guztiok xede bera onartzea eta zabaldu nahi izatea.



Euskadiren eta Euskal Herriaren eta Vasconiarenen euskararen lurraldlean bizi gara, uste baino gertuago eta, gaur, gertutasun horrek gerturatzeko jarraitzeko indarra ematen digu.

Eusko Ikaskuntza nació hace cien años, ha sabido mantener viva la llama de su espíritu y, nos ofrece hoy, un ideario para el siglo XXI:

“Personas unidas por su amor al estudio y a la acción. Preocupadas por la cohesión y el progreso del País, la defensa y promoción de su lengua, los signos de identidad y el patrimonio cultural propio.”

Duela ehun urte landatu zuten hazia ondo erein eta zaindu duzue.

Gaur zuhaitz sendo bat dugu, gure kultura babestu eta bultzatzen duena, adarrak mundu zabalera irekita duena. Zuhaitz honen ondoan elkartu gara eta “auzolana” eredua onartu dugu, elkarrekin gure herriaren sustraiak sustatzen eta adarrak zabaltzen jarraitzeko. Elkarrekin etorkizuneko erronkei erantzuteko: Hezkuntza; Demografiaren erronka eta gaztedia; Digitalizazioa eta Berrikuntza; Euskadi, Euskal Herria, Vasconia, País Vasco, Pays Basque, Baskenland, Basque Country-ren nazioartekotzea.

Gaur “Baltzu” honetan elkartu gara, elkarrekin, elkarlanean, auzolanaren bidez gure herriaren erronkei egoki erantzuteko, gure herria eraikitzeten jarraitzeko

Xede honekin bat egiten dugu Eusko Ikaskuntzak lehen ehun urteak betetzen duen egunean.

Harro zaudete eta harro gaude, egindakoarekin eta elkarrekin
ezin denak zutenean.

Eskerrik asko Eusko Ikaskuntza, urte askotarako geroa,

XVIII. Kongresuaren eta Mendeurreneneko Organigramak

Organigramas del XVIII Congreso y del Centenario

Organigrammes du XVIIIe Congrès et du Centenaire

XVIII. Kongresuaren Organigrama

Organigrama del XVIII Congreso

Organigramme du XVIIIe Congrès

Batzorde Zientifikoa / Comité Científico / Comité Scientifique

Iñaki DORRONSORO. Eusko Ikaskuntzako lehendakaria / Presidente de Eusko Ikaskuntza / Président d'Eusko Ikaskuntza

Xabier ALKORTA. Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuko lehendakaria / Presidente del XVIII Congreso de Estudios Vascos / Président du XVIIIe Congrès d'Études Basques

Beatriz AKIZU. Eusko Ikaskuntza

Arrate ARIN. Eusko Ikaskuntza

Josemari ARRAZOLA. Eusko Ikaskuntzako Gipuzkoako lehendakariordea / Vicepresidente de Eusko Ikaskuntza por Gipuzkoa / Vice-président d'Eusko Ikaskuntza pour Gipuzkoa

Asier BARANDIARAN. Eusko Ikaskuntzako Nafarroako lehendakariordea / Vicepresidente de Eusko Ikaskuntza por Navarra / Vice-président d'Eusko Ikaskuntza pour Navarre

Javier CASTRO-SPILA. Innology Lab Network

Arantza CUESTA. Eusko Ikaskuntza

Josune ETXANIZ. Eusko Ikaskuntza

Leire GACEO. Eusko Ikaskuntza

Anjeles IZTUETA. Eusko Ikaskuntzako Arabako lehendakariordea / Vicepresidenta de Eusko Ikaskuntza por Álava / Vice-présidente d'Eusko Ikaskuntza pour Araba-Álava

Jean-Michel LARRASQUET. Eusko Ikaskuntzako Ipar Euskal Herriko lehendakariordea / Vicepresidente de Eusko Ikaskuntza por Ipar Euskal Herria / Vice-président d'Eusko Ikaskuntza pour Ipar Euskal Herria

Iban LIZARRALDE. ESTIA Institute of Technology

J. Inazio MARKO JUANIKORENA. Euskal Herriko Unib. / Univ. del País Vasco

Koro MURO. Eusko Ikaskuntza

Eva NIETO. Eusko Ikaskuntza

Rosa Miren PAGOLA. Eusko Ikaskuntzako Bizkaiko lehendakariordea / Vicepresidenta de Eusko Ikaskuntza por Bizkaia / Vice-présidente d'Eusko Ikaskuntza pour Bizkaia

Angel TOÑA. Deustuko Unib. / Univ. de Deusto

Eguzki URTEAGA. Eusko Ikaskuntzako Ipar Euskal Herriko lehendakariordea / Vicepresidente de Eusko Ikaskuntza por Ipar Euskal Herria / Vice-président d'Eusko Ikaskuntza pour Ipar Euskal Herria

Julen ZABALO. Euskal Herriko Unib. / Univ. del País Vasco

Mario ZUBIAGA. Euskal Herriko Unib. / Univ. del País Vasco

Batzorde Antolatzailea / Comité Organizador / Comité Organisateur

Iñaki DORRONSORO. Eusko Ikaskuntzako lehendakaria / Presidente de Eusko Ikaskuntza / Président d'Eusko Ikaskuntza

Xabier ALKORTA. Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuko lehendakaria / Presidente del XVIII Congreso de Estudios Vascos / Président du XVIII^e Congrès d'Études Basques

Beatriz AKIZU. Eusko Ikaskuntza

Arrate ARIN. Eusko Ikaskuntza

Arantza CUESTA. Eusko Ikaskuntza

Josune ETXANIZ. Eusko Ikaskuntza

Leire GACEO. Eusko Ikaskuntza

Koro MURO. Eusko Ikaskuntza

Eva NIETO. Eusko Ikaskuntza

Talde Eragileak / Comité Ejecutivo / Équipe exécutive du projet

Etorkizuna irudikatuz: nahi dugun gizartea, izango dugun gizartea / Imaginando el futuro: la sociedad que queremos, la sociedad que tendremos / Imaginer le future : la société qu'on veut, la société qu'on aura

Arduradun zientifiko / Director científico / Directeur Scientifique: Jean-Michel LARRASQUET

Proiektu arduraduna / Responsable del proyecto / Responsable du Projet: Koro MURO ARRIET

Talde eragilea / Comité ejecutivo / Comité executif: Ane BUSTINDUY, Javier CASTRO-SPILA, Lola ELEJALDE, Iban LIZARRALDE, Maitena URMENETA, Adriana MARTÍNEZ, Xabier OLEAGA eta Ibon ZUGASTI.

Euskararen etorkizuneko eszenarioak elkarrekin eraikitzen (e5) / Construyendo conjuntamente los escenarios de futuro del euskera (e5) / Construire collaborativement les scénarios du futur de la langue basque (e5)

Arduradun zientifiko / Director científico / Directeur Scientifique: J. Inazio MARKO JUANIKORENA

Proiektu arduraduna / Responsable del proyecto / Responsable du Projet: Josune ETXANIZ

Talde eragilea / Comité ejecutivo / Comité executif: Xan AIRE, Kike AMONARRIZ, Xabier ERIZE, Beñat GARAIO, Jone GOIRIGOLZARRI, Mikel IRIZAR, Ibon MANTEROLA, Iñaki MARTINEZ DE LUNA, Olatz OLASO eta Ana URKIZA.

Gizartea: aniztasuna eta kohesioa / Sociedad: diversidad y cohesión / Société : diversité et cohésion

Arduradun zientifiko / Director científico / Directeur Scientifique: Julen ZABALO

Proiektu arduraduna / Responsable del proyecto / Responsable du Projet: Beatriz AKIZU

Talde eragilea / Comité ejecutivo / Comité executif: Josu AMEZAGA, Iker IRAOLA, Beatriz NARBAIZA eta Ander VIZÁN.

Garapen sozioekonomikoa: euskal gizartea eta enpresa /
Desarrollo socioeconómico: sociedad vasca y empresa /
Developpement socioéconomique : société basque et
enterprise

Arduradun zientifiko / Director científico / Directeur
Scientifique: Angel TOÑA

Proiektu arduraduna / Responsable del proyecto / Responsable
du Projet: Arrate ARIN

Talde eragilea / Comité ejecutivo / Comité executif: Tomás
ARRIETA, Iker ATXA, Imanol ESNAOLA, Jean-Michel
LARRASQUET eta Joseba ZALAKAIN.

Gobernantza demokratikoa / Sociedad: diversidad y
cohesión / Société : diversité et cohésion

Arduradun zientifiko / Director científico / Directeur
Scientifique: Mario ZUBIAGA

Proiektu arduraduna / Responsable del proyecto / Responsable
du Projet: Beatriz AKIZU

Talde eragilea / Comité ejecutivo / Comité executif: Amalur
ÁLVAREZ, Andoni EIZAGIRRE, Imanol ESNAOLA, Gorka
ESPIAU, Zelai NIKOLAS, Ana OREGI eta Begoña PEREZ DE
EULATE.

Mendeurrenaren Organigrama

Organigrama del Centenario

Organigramme du Centenaire

Batzorde Antolatzalea / Comité Organizador / Comité Organisateur

Iñaki DORRONSORO. Eusko Ikaskuntzako lehendakaria /
Presidente de Eusko Ikaskuntza / Président d'Eusko Ikaskuntza

Xabier ALKORTA. Eusko Ikaskuntzaren Mendeurreneko
lehendakaria / Presidente del Centenario de Estudios Vascos /
Président du Centenaire d'Eusko Ikaskuntza

Juan AGUIRRE SORONDO. Eusko Ikaskuntza

Arantza CUESTA. Eusko Ikaskuntza

Koro MURO. Eusko Ikaskuntza

Jose Angel ORMAZABAL. Eusko Ikaskuntza

Josemari VELEZ DE MENDIZABAL. Barandiaran Fundazioa

XVIII. Kongresuaren egitaraua

Programa del XVIII Congreso

Programme du XVIIIe Congrès

10/05 > Baiona

Etorkizuna irudikatuz: nahi dugun gizartea, izango dugun gizartea

Imaginando el futuro: la sociedad que queremos, la sociedad que tendremos
Imaginer le future : la société qu'on veut, la société qu'on aura

- 9:15 Dokumentazioaren banaketa / Remise de la documentation / Entrega de la documentación
- 9:45 Xiberuako agurra eta Soka-dantza / Danse d'honneur et Soka-dantza pour rentrer dans la salle / Saludo de Zuberoa y Soka-dantza
- 10:00 Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuaren hasiera ekitaldia / Cérémonie d'ouverture du XVIIIe Congrès d'Études Basques / Acto de apertura del XVIII Congreso de Eusko Ikaskuntza (eu, fr)
- Yves UGALDE. Baionako Kultura eta Senidetza Zinegotzia / Culture et Jumelages du Mairie de Bayonne / Concejal de Cultura y Hermanamiento del Ayuntamiento de Baiona
- Eguzki URTEAGA. Eusko Ikaskuntzako Ipar Euskal Herriko lehendakariordea / Vice-président d'Eusko Ikaskuntza pour Ipar Euskal Herria / Vicepresidente de Eusko Ikaskuntza por Ipar Euskal Herria
- Iñaki DORRONSORO. Eusko Ikaskuntzako lehendakaria / Président d'Eusko Ikaskuntza / Presidente de Eusko Ikaskuntza
- 10:30 **Geroa Elkar-Ekin: Kongresuko atal bakoitzaren aurkezpena / Notre Futur Ensemble : Présentation de chacune des séances du Congrès / El Futuro que nos (re)une: presentación de cada jornada del Congreso (eu, es)**
- Aurkezpena / Presentation / Presentación: Xabier ALKORTA. XVIII. Kongresuko lehendakaria / Président du XVIII^e Congrès / Presidente del XVIII Congreso

Fuskararen etorkizuneko eszenarioak elkarrekin eraikitzen / Construire collaborativement les scénarios du futur de la langue basque / Construyendo conjuntamente los escenarios de futuro del euskera: Josune ETXANIZ, J. Inazio MARKO JUANIKORENA

Gizartea: aniztasuna eta kohesioa / Société: diversité et cohésion / Sociedad: diversidad y cohesión: Beatriz AKIZU, Julen ZABALO

Garapen sozioekonomikoa: euskal gizartea eta enpresa / Developpement socioéconomique: société basque et entreprise / Desarrollo socioeconómico: sociedad vasca y empresa: Arrate ARIN, Ángel TOÑA

Gobernantza demokratikoa / Gouvernance démocratique / Gobernanza democrática: Beatriz AKIZU, Mario ZUBIAGA

11:30 Les territoires à l'épreuve de la globalisation et des mutations du monde (fr)

Jean Pierre CLAVERANNE. Université de Lyon

12:30 Hizlariarekin solasean / Parler avec l'orateur / Conversando con el ponente (eu, fr, es)

13:00 Lunch-Bazkaria Elkarteen Etxean / Lunch-Déjeuner à la Maison des Associations / Lunch–Comida en la Casa de las Asociaciones

